

Sektorea – Sector 7**NEKAITZ - ELORTA - ARRIGORRI**

Alderdi honetan ere Burdin Aroko oroitarriak ikus ditzakegu, berean dagozten 24 harrespilek,

7 mukuruek eta 2 harribakarrek erakusten duten bezala; trikuharri bakarra, baldinbada ere, Elorrietakoa izanen zen .

Zona casi exclusiva de enterramientos de la Edad del Hierro, como lo demuestran sus 24 círculos de piedra, 7 túmulos y 2 menhires; el único dolmen, y dudoso, sería el de Elorrieta.

NEKAITZ HARRESPILA – CROMLECH**231**

Jabetza / Propiedad : Baztan.

Goi / Altitud : 850 m.

Aroa / Epoca : Burdin. Edad del Hierro.

Deskribapena : 5 metro diametro eta 10 harriz osaturiko harrespila, eta bertze bat bertatik ateria eta mugarriaren ondora eramana. Bortz harririk zutik ditu, hauetarik haundiena, Sortaldekoa, 0,45 m. garai, 0,70 m. zabal eta 0,22 m. lodi da. Honen ondokoa, Sartaldera, 0,25 m. x 0,70 x 0,16. Etzana dagoen bat, 1,20 m. x 0,54 / 0,33 m. Mukurua desitxuratua agertzen da, Iparraldean hautsia, eta hango harria mugarri ondora gana. Hau 1,48 m. luze, 0,55/ 0,28/ 0,42 m. x 0,24/ 0,34 da eta hilarri itxura dauka. Harriak guti agertzen dira lur gainean.

Harri mota : Hareazkoak.

Egoera : Txarra. Seinalizatu gabe.

Kokapena : Nekaitz lepotik Hegoaldean dago, 99. mugarritik 6 metrora.

Historia : Jose Migel Barandiaranek aurkitu zuen 1948ko azaroaren 24an. Neurriak, J. Cabodevillak eta I. Zabalzak hartuak 2003. urteko Garilaren lehenean. Ez da indusketarik ezagutzen.

Descripción : Círculo de 5 metros de diámetro formado por 10 piedras. Mantiene 5 ortostatos, el mayor, el del Este, mide 0,45 metros de alto, 0,70 de ancho y 0,22 de grosor. A su lado al Este, otro de 0,25 x 0,70 x 0,16. Uno tumbado es de 1,20 x 0,54/ 0,33. El túmulo aparece desfigurado, roto por el Norte y su ortostato llevado al lado del actual mojón internacional, tiene forma de estela discoidal y mide 1,48 metros de largo, 0,55/ 0,28/ 0,42 de ancho y 0,24/ 0,34 de grosor.

Material : Areniscas.

Estado : Malo. Sin señalar.

Ubicación : Se encuentra al Sur del collado Nekaitz, a 6 metros del mojón internacional nº 99.

Historia: Encontrado por Jose Migel Barandiaran el 24 de Noviembre de 1948. Medidas tomadas por J. Cabodevilla e I. Zabalza el 1 de Julio del 2003. No se conoce excavación.

Bibliografía :

Barandiaran J.M. Crónica de Prehistoria . 1949.

Ripa P. Monumentos megal.....1990.

ELORTA (ELORRIETA) TRIKUHARRIA - DOLMEN

235

Jabetza / Propiedad : Baztan. Erratzu.

Koordenatuak / Coordenadas : Lonj. 2° 10'54", Latit. 43° 09' 21".

Goi / Altitud : 850 m.

Aroa / Epoca : Eneolito. Brontze.

Deskribapena: Trikuarriaren mukuru biribila 6 m. diametro eta 1,00 m. garai da; 30 harriz inguratua dago, biribil forma emanez harrespila bailitz. Erdian ziloa badu eta alde batetik irekia izan da.

Harri mota : Hareazkoak.

Egoera : Ona, orokorrean. Seinalizatu gabe.

Kokapena : Elorrietako harrespilen multzoaren barruan.

Historia : J. Migel Barandiaranek aurkitua 1948ko azaroaren 24ean, eta berak dioenez, profanatu izan da. Halaxe, militarrek trintxera bezala erabili izan dute. Ez da indusketarik ezagutzen.

Descripción : Túmulo de piedras circular de 6 metros de diámetro y 1,00 de altura; rodeándolo se ven 30 piedras clavadas como si fuera un cromlech. En la zona central se aprecia una depresión y ha sido abierta.

Material : Areniscas.

Estado : En general, bueno. Sin señalar.

Ubicación : dentro del conjunto de cromlechs de Elorrieta.

Historia : Encontrado por Jose M. Barandiaran el 24 de Noviembre de 1948 y, según afirma, ha sido profanado. También ha sido utilizado como trinchera por los militares. No se conoce excavación.

Bibliografía :

Barandiaran J. M. Crónica de Prehis.....1949.

Barandiaran J.M. El hombre prehist.....1953.

Barandiaran I. Prehistória de N. 1980.

Ripa P. Monumentos megal.....1990.

ELORTA (ELORRIETA) HARRESPILAK - CROMLECHS

236-253

Jabetza / Propiedad: Baztan-Erratzu: I, II, III, IV, V, VI, VII, VIII, IX, X, XIII, XIV, XV, XVI, XVII, XVIII, XIX, XX eta XXI. Baigorri (Behanafarroa-Baja Navarra): X, XI eta XII.

Goi / Altitud : 830 m.

Aroa / Epoca : Burdin Aroa. Edad del Hierro.

Deskribapena : Sortaldetik Sartalderuntz lerrokaturiko 21 harrespilen taldea da.

Harri mota : Hareazkoak.

Egoera : Ona. Seinalizatu gabe. Belarrez estaliak, multzoaren haunditasuna atzeman daiteke. 2003ean X eta XI harrespilak profanatuak izan dira: erdian zilo handiak dituzte eta ondoan ateritako lurra.

Kokapena : Elorrietako lepoan, Nekaitz eta Auzako Harrigorri artean. Frantzia-Espainia estatu arteko muga bertatik pasatzen da .

Historia : J. Migel Barandiaranek aurkituak, 1948ko Azaroaren 24an; 21 harrespiletatik haundienak diren 7 bakarrik ikusi edo argitaratu zituen beren lanetan. Gainontzekoak J. Cabodevillak eta I. Zabazak ikusi eta neurtuak izan dira. Ez da indusketarik ezagutzen.

Descripción : Conjunto de 21 cromlechs que se extiende de Este a Oeste.

Material : Areniscas.

Estado : Bueno. Sin señalar. Cubiertos con fina hierba, el conjunto es monumental. En 2003 fueron profanados el X y el XI, con un gran agujero en el centro y la tierra amontonada al lado.

Ubicación : en el collado de Elorrieta, situado entre Nekaitz y Harrigorri de Auza. La muga estatal franco-española pasa por parte del conjunto.

Historia : Encontrado por J. Migel Barandiaran el 24 de Noviembre de 1948, quien sólomente observó o publicó los 7 mayores de los 21. El resto han sido medidos por J. Cabodevilla e I. Zabalza. No se conoce excavación.

Bibliografía :

Barandiaran J. M. Cromlechs piren.....1949.

Ripa P. Monumentos megal.....1990.

Blot J. Euskal herria.....1993.

ELORRIETA I harrespila - cromlech

236

Harrespila 6 m. diametro da eta zutik dauden 22 harriz osaturikoa. Haundiena 0,50 m. garai da, gainontzekoak guti agertzen dira lur gainean.

Círculo de 6 metros de diámetro formado por 22 ortostatos en pie. El mayor tiene de 0,50 metros de altura y el resto sobresalen poco.

ELORRIETA II harrespila - cromlech

237

I-tik 2 metrora eta bere diametroa 6m. da; 36 harriz osatzen dute biribil hau, gehienak guti agertzen direla lur gainean; Sortaldekoa, berriz, 0,40 m. garai da eta Iparraldekoa 0,80m. Erdiko aldean lau harri etzanik ikus daitezke.

A 2 metros del anterior, círculo de 6 metros de diámetro formado por 36 pequeños ortostatos. Los mayores, el del Este con 0,40 de altura y el del Norte con 0,80. En el interior se ven cuatro piedras tumbadas.

ELORRIETA III harrespila - cromlech.

238

II-etik metro erdira dago. Tumulua ba du, 6 m. diametro eta 0,40 m. garai, eta biribila 25 harriz egiten dute. Honetan ere harriak guti agertzen dira lur gainean; handixkoenak, Sortaldekoak, bat 0,90 m. garai eta 0,59 zabal eta 0,27 lodi da; bere ondokoa, 0,80 garai eta 0,88 zabal eta 0,26 lodi da.

A medio metro del II. El túmulo es de 6 metros de diámetro y 0,40 de altura. El círculo lo forman 25 pequeñas piedras tiesas; las mayores en el Este, son de 0,90 de alto, 0,59 de ancho y 0,27 de grosor y, a su lado, otra de 0,80 de alto, 0,88 de ancho y 0,26 de grosor.

ELORRIETA IV harrespila – cromlech.

239

II eta IIIren erdian. Biribila, 2 m.diametrokoa, lurretik guti agertzen diren 8 harriz osatua dago.

Entre el II y el III. De 2 metros de diámetro, está formado por 8 ortostatos que asoman poco del suelo.

ELORRIETA V harrespila - cromlech.	240
---	------------

III-tik hagitz hurbil, Sartalderuntz. Harrespilaren biribila 2 m. diametro da eta 15 harriz eginik dago, guziak xutik lurrean sarturik eta txikiak izaki.

Muy cerca del III, hacia el Oeste. Mide 2 metros de diámetro y está formado por 15 pequeños ortostatos, todos ellos pequeños y clavados en el suelo.

ELORRIETA VI harrespila - cromlech	241
---	------------

III eta V-etik hurbil oso, azken honen hegoalderuntz. Harrespilaren biribila 2,50 metro diametro da eta lau harri agertzen dira lurrean xut.

Muy cerca del III y del V, al Sur de este último. Círculo de 2,50 metros de diámetro, formado por 4 pequeños ortostatos clavados en el suelo.

ELORRIETA VII harrespila - cromlech.	242
---	------------

V-etik hurbil, Sartalderuntz. Biribila 4 metro diametro da eta 25 harri ikusten dira xutik lurrean sarturik, gehienak 0,30 m. garai inguru dira.

Muy cerca y hacia el Oeste del V. Un círculo de 4 metros de diámetro y formado por 25 pequeños ortostatos, la mayoría de 0,30 metros de alto.

ELORRIETA VIII harrespila – cromlech.	243
--	------------

VII-tik metro gutira, Hego-sartalderuntz. Biribila 4,50 m. diametro da eta bera osatzen 5 harri agertzen dira lurrean finkaturik eta garai gutikoak.

A pocos metros al Suroeste del anterior. Círculo de 4,50 metros de diámetro y 5 ortostatos clavados en el suelo y de poca altura.

ELORRIETA IX harrespila - cromlech.	244
--	------------

VII-etik sartaldera buruz eta VIII-etik ipar-sartalderantz. Biribila 4,50 m. diametro da eta 4 harri baizik ez dira agertzen xutik lurrean. Sartaldekoa, 0,20 garai, 0,48 zabal eta 0,14 lodi da.

Al Oeste del VII. y al Noroeste del VIII. Círculo de 4,50 metros de diámetro y con 4 pequeños ortostatos a la vista, siendo el del Oeste de 0,20 de altura, 0,48 de anchura y 0,14 de grosor.

ELORRIETA X harrespila - cromlech	(Udalerria-Municipio: Baigorri)
--	--

IX-tik metro batzuetara iparraldera buruz. Mukuru apala du, 7 m. diametroa da eta 26 harriz osatua dago, harri gehientsuenak txikiak. Sortaldekoa 0,73 m. garai, 0,54 zabal eta 0,29 lodi da; bertze bat 0,60 garai eta 0,30 zabal; eta bertze bat 0,60 garai eta 0,45 zabal.

A pocos metros al Norte del IX. El túmulo sobresale poco, tiene 7 m. de diámetro y está formado por 26 ortostatos, la mayoría pequeños. El del Este mide 0,73 m. de alto, 0,54 de ancho y 0,29 de grosor; otro es de 0,60 de alto por 0,30 de ancho; y otro es 0,60 de alto y 0,45 de ancho.

ELORRIETA XI harrespila - cromlech	(Udalerrria-Municipio: Baigorri)
---	---

X-tik Sartalderantz metro gutira. Biribila 26 harriz osatua eta 4,5 m. diametro da. Sortaldeko harria 0,65m. garai , 0,60 zabal eta 0,22 lodi da; bertzeak ttallagoak.

A pocos metros al Oeste del X. Círculo formado por 26 ortostatos y 4,5 m de diámetro. El ortostato del Este mide 0,65 de alto, 0,60 de ancho y 0,22 de grosor; los demás son más pequeños.

ELORRIETA XII harrespila - cromlech	(Udalerrria-Municipio: Baigorri)
--	---

Sartaldera jarraikiz, metro gutira. Biribila diametroa 4,50 m. eta 17 harriz osatua. Ipar Ekialdekoa 0,28 m. garai, 0,45 m. zabal eta 0,26 m. lodi da. Erdiko aldean ere bertze hiru harri agertzen dira.

A pocos metros continuando hacia el Oeste. Círculo de 4,5 m de diámetro y 17 ortostatos,. El del NorEste tiene 0,28 m de alto, 0,45 de ancho y 0,26 de grosor. En el centro aparecen otras tres piedras.

ELORRIETA XIII harrespila - cromlech.	245
--	------------

XII-tik metro gutira, ipar sartalderuntza eta bidexkaren alboan. Diametroa 3,50 metro da eta 40 bat harri agertzen dira berean, biribila eratzen eta erdialdean.

A pocos metros del XII hacia el Noroeste, al lado del camino. De 3,50 metros de diámetro y formado por unas 40 piedras, formando el círculo y también en el interior.

ELORRIETA XIV harrespila - cromlech.	246
---	------------

XIII-tik metro gutira eta sartaldera buruz. Harrespilaren biribla egituratzen, 7 harri agertzen dira lurtean finkaturik eta garai ttikikoak. Biribila 3,50 m. diametro da.

A pocos metros del XIII y hacia el Oeste. Círculo de 3,50 metros de diámetro y formado por 7 pequeños ortostatos clavados en el suelo.

ELORRIETA XV harrespila - cromlech.	247
--	------------

XIV-tik metro gutira, iparraldera buruz. Biribila 6,50 metro diametro da eta 5 harri ditu ingurua osatzen. Erdian lau harriz eginiko kutxatxo bat ikusten da. Bideak gaineratik zeharkatzen du.

A pocos metros al Norte del XIV. Círculo de 6,50 metros de diámetro formado por 5 ortostatos pequeños a la vista, apreciándose en el centro una caja hecha por 4 lositas. El camino lo cruza por el medio.

ELORRIETA XVI harrespila - cromlech.	248
---	------------

XIV eta XV-etik hurbil eta sartalderuntza. Biribila 4 metro diametro da eta egun lau harri ikus daitezke xutik bera osatzen. Erdian kutxatxo baten bi harlauxa luzeenak agertzen dira.

Hacia el Oeste y muy cerca del XIV y el XV. Un círculo de 4 metros de diámetro y formado por 4 pequeños ortostatos. En el centro se ven las lositas laterales de la caja.

ELORRIETA XVII harrespila - cromlech.**249**

XVI-tik hurbil, sartalderuntza. Harrespila 3,50 metro diametro da eta 14 harri agertzen dira xutik, lurrean finkaturik.

Cerca del XVI al Oeste. Círculo de 3,50 metros de diámetro y formado por 14 pequeños ortostatos de pie y clavados.

ELORRIETA XVIII harrespila - cromlech**250**

XVII harrespila eta trikuharriaren artean. Biribila 2 metro diametro da eta 5 harriz osaturik agertzen da.

Entre el cromlech XVII y el dolmen. Círculo de 2 metros de diámetro formado por 5 pequeñas piedras a la vista.

ELORRIETA XIX harrespila - cromlech.**251**

Trikuharritik metro gutira sartalderuntza. Biribila 3,50 metro diametro da eta 21 harri txikik osatzen dute.

A pocos metros al Oeste del dolmen. Círculo de 3,50 metros de diámetro formado por 21 piedras pequeñas.

ELORRIETA XX harrespila - cromlech.**252**

XIX-tik metro gutira hegosalderara buruz. Biribila 3,50 metro diametro da eta 6 harriz eginik ikusten da egun. Erdian, kutxatxoaren aldea eratuz edo, zortzi harri agertzen dira. Xendak erditik zeharkatzen du.

Apocos metros del XIX hacia el Suroeste. Círculo de 3,50 metros de diámetro formado por 6 pequeños ortostatos a la vista. En el centro se ven ocho piedras, a modo de lateral de la caja. Una senda lo cruza por la mitad.

ELORRIETA XXI harrespila - cromlech.**253**

XIX-etik metro batzuetara iparsalderara buruz, aurkitzen da. Biribila 3 metro diametro da eta 8 harriz egituraturik agertzen da. Erdian ere bertze hiru ikus daitezke.

A unos metros al Noroeste del XIX. Un círculo de 3 metros de diámetro y formado por 8 piedras clavadas, en el medio se pueden ver otras 3.